




**2023-2025/26 aldiko catering garraiatua**

BERTSIO LABURRA



## SARRERA

2023-2024 ikasturtearen hasieran, ikastetxe publikoetako jantokien kontratu berriak indarrean jarri dira. Kontratu horietan, janari prestatua sukalderik ez duten ikastetxeetara eramaten duten catering-enpresek (garraiatutako cateringaren kontratua) eta lehengai sukaldea duten ikastetxeetara eramaten dutenek (*in situ* cateringa) bete behar dituzten baldintzak jasotzen dira. Halaber, langileekin lotutako baldintza batzuk arautzen dira (sukaldea, officea, monitoreak).

Kontratu horiek gutxienez hiru ikasturteko iraupena izango dute, eta beste bi urtez luzatu ahal izango dira. Hezkuntza Sailaren eta lizitazioa irabazi duten catering-enpresen artean sinatu dira, eta prozesu horretan ezin izan dugu inola ere parte hartu.

Hala ere, **zerbitzuaren kontrolean parte har dezakegu**. Izan ere, indarrean dagoen araudiak (2000ko martxoaren 22ko Agindua) horretarako ahalmena ematen digu. Hala, ezartzen du OOGri dagokiola «jantokiaren funtzionamendua gainbegiratzea». Era berean, ezartzen du Jantoki Batzordearen (OOGren mendeko batzordea) ahalmena dela «jantoki-zerbitzua ebaluatzea eta OOGri hobekuntzak proposatzea».

Dokumentu honen helburua da modu errazean azaltzea zer baldintza bete behar dituzten enpresek, **zuei kontrol-lan hori egiten laguntzeko**.


Helburu hori **hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea sustatzeko** gure helburu estrategikoaren barruan kokatzen da, **Euskal Eskola Publikoaren kalitatea hobetzeko**. Era berean, **eskola-elikadura osasungarriagoa, justuagoa eta jasangarriagoa** lortu nahi dugu.

## AURREKARIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko eskola publikoetako jantokietarako catering garraiatuaren zerbitzuari buruzko aurreko kontratua Hezkuntzako sailburuordeak esleitu zuen 2015eko irailaren 25ean, 24 hilabeterako, eta gehienez hiru luzapen onartzeko aukerarekin, 2019ko ekainaren 30era arte.

**Egungo kontratua 2021eko irailean hasi zen lizitatzen**, zegokion iragarkia argitaratzearekin batera. **Hiru kontratazio-espediente izapidetu dira, lurraldeka banatuta**, eta horietako **bakoitza lotetan banatuta**. Horiek ere lurralde-logikari erantzuten diote.

**Kontratuak 2023ko uztailaren 1ean hasiko dira gauzatzen, eta hiru ikasturtez luzatuko dira (2025-2026 ikasturtera arte). Aukera dago gehienez bi luzapen adosteko, horietako bakoitza urtebetekoa izanik.**




## ZEIN ENPRESA DIRA KONTRATUEN ADJUDIKAZIODUNAK?

### ARABA

Lotea	Enpresa	Menuaren (BEZa gabe)	Begiralea (BEZa salbuetsita)	Sukaldeko laguntz. (BEZa gabe)	Etik. ekologikodun produktuak	Label produktuak	Bidezko merk. produktuak
1 Gasteiz	Eurest	2,77 €	24,17 €	24,55 €	16	8	2
2 Zuia	Serunion	2,62 €	21,78 €	21,78 €	16	11	2
3 Aiara-Guardia	Serunion	2,60 €	21,00 €	21,00 €	16	11	2

### GIPUZKOA


Lotea	Enpresa	Menuaren prezioa (BEZa gabe)	Begiralearen prezioa (BEZa salbuetsita)	Sukaldeko laguntz. prezioa (BEZa gabe)	Etik. ekologik. produk.	Label produk	Bidezko merk. produk.
1 Donostia	Eurest	2,91 €	24,87 €	25,34 €	16	8	2
2 Donostialdea	Serunion-Aibak	2,80 €	23,50 €	23,65 €	16	11	2
3 Bidasoa	Serunion-Aibak	2,80 €	23,60 €	23,80 €	16	11	2
4 Debabarrena	Gastronomia Cantábrica	2,71 €	24,00 €	24,00 €	16	8	2
5 Urola kosta	Gastronomia Cantábrica	2,78 €	24,00 €	24,00 €	16	8	2
6 Goierri	Serunion-Aibak	2,94 €	25,25 €	25,26 €	16	11	2
7 Debagoiena	Gastronomia Vasca	2,79 €	25,25 €	25,26 €	16	12	2
8 Tolosaldea	Ausolan	2,92 €	26,37 €	26,37 €	16	12	2



## BIZKAIA

Lotea	Enpresa	Menuaren prezioa (BEZa gabe)	Begiralearen prezioa (BEZa salbuetsita)	Sukaldeko laguntz. prezioa (BEZa gabe)	Etik. ekologik. produk.	Label produkt.	Bidezko merk. produkt.
1 Bilbo handia - Ezkerraldea	Gastronomia Vasca	2,49 €	23,50 €	23,50 €	16	8	2
2 Bilbo	Gastronomia Cantábrica	2,54 €	24,00 €	24,00 €	16	8	2
3 Bilbo handia Eskuinaldea	Eurest	2,80 €	24,85 €	25,19 €	16	12	2
4 Meatzaldea-Nerbioi garaia	Eurest	2,79 €	24,96 €	24,93 €	16	12	2
5 Durangaldea	Gastronomia Cantábrica	2,71 €	24,00 €	24,00 €	16	8	2
6 Uribe	Gastronomia Vasca	2,60 €	25,02 €	25,00 €	16	10	2
7 Busturialdea	Gastronomia Vasca	2,62 €	25,02 €	25,01 €	16	10	2
8 Arratia	Gastronomia Cantábrica	2,78 €	24,00 €	24,00 €	16	8	2
9 Lea-Artibai Enkarterriak	Gastronomia Vasca	2,77 €	24,93 €	24,92 €	16	10	2

Ikus daitekeenez, lizitazio berri honetan adjudikazioak enpresa gutxi batzuetan bildu dira berriro.



## ZERGATIK KONTROLATU BEHAR DUGU ZERBITZUA?

Jantoki-kontratua "zerbitzu berezia" da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera (9/2017 Legea, 2017ko azaroaren 9ko BOEn argitaratua); beraz, kontratatzaileak (**Hezkuntza Sailak**) erabiltzaileek parte hartzeko mekanismoak ezar ditzake. Hala ere, Sailak ez du kontsulta hori egin. Hau da, ez ditu familiak kontuan hartu kontratuaren baldintzak egiteko orduan.

Bestalde, Hezkuntza Sailak bere kabuz eta modu zentralizatuan erabakitzen dituen **kontratu horiek gehienbat familiek finantzatzen ditugu**, zerbitzuaren % 57,85 finantzatzen baitugu.

Lurraldea	Urteko kostua (bez-a barne)	Familien kuota	EJren ekarpena
ARABA	13.621.575,96 €	8.018.575,96 € (% <b>58,87</b> )	5.603.000,00 €
GIPUZKOA	20.845.751,13 €	10.236.042,41 € (% <b>49,11</b> )	10.609.708,72 €
BIZKAIA	34.288.438,57 €	21.515.438,57 € (% <b>62,75</b> )	12.773.000,00 €
GUZTIRA	68.755.765,66 €	39.770.056,94 € (% <b>57,85</b> )	28.985.708,72 €

Azkenik, sarreran adierazi dugun bezala, ikastetxe publikoek, beren erabaki- eta ordezkartza-organoen bidez (OOG), zerbitzuaren kontrola egin dezakegu.


## ZEIN DIRA HEZKUNTZA SAILAK KONTRATU ZENTRALIZATUETARAKO FINKATU DITUEN OINARRIZKO KALITATE-BETEKIZUNAK ETA -BALDINTZAK?

### PRODUKTU EKOLOGIKOAK, LABELDUNAK, BIDEZKO MERKATARITZAKOAK ETA HURBILEKOAK

Eskaintzak baloratzeko irizpideetako bat produktu ekologikoak, labeldunak, bidezko merkataritzakoak eta tokiko/EAEko hornitzaileek emandakoak sartzea izan da (azken horiek *in situ* sukaldeen kasuan bakarrik).

Hasierako koadroetan, zuen enpresak hobekuntza horiekin zenbat produktu eskaini dituen ikus dezakezue (zer baldintza bete behar dituen). **Kalitate horietako zein produktu zein menutan sartuko dituzten (eskainiko dituzten) jakiteko, kontsulta enpresari berari edo Hezkuntza Sailari egin diezaiokezue.**

Balorazio-irizpideetako bat denez, produktu horiek kontratuaren betebeharrak bihurtzen dira (baldintza hori nahitaez bete behar da), eta, beraz, horiek ez betetzeak lizitazio-agirietan aurreikusitako zehapena ezartzea ekar dezake.



## BESTE BETE-BEHAR INTERESGARRI BATZUK

Hauek dira gure ustez enpresek nahitaez bete behar dituzten klausula azpimarragarrienak:

### 1) Elikadura

-Berotan garraiatutako menua:

- 65 ° baino gehiagora garraiatu eta kontserbatu behar da.
- **Ez dago onartua menuetako platerak hotzean egitea eta berotan garraiatzea.**
- **10:00etatik 12:00etara bitartean** entregatu beharko dira.

-Menuen kudeaketa eta programazioa.

- **Lau menu mota** eskainiko dira:
  - menu basala.
  - txerririk gabeko menua.
  - menu obolaktobegetarianoa.
  - menu obolaktobegetarianoa arrainarekin.
- Gainera, **nutrizio-premia bereziak dituzten ikasleentzako dietak** eskainiko dira.

-Menuen dibulgazioa:

- Menu eta dieten programazioak **hiruhilekoak** izango dira.
- **Hiruhileko bakoitza hasi baino astebete lehenago emango dira.**
- **Inprimatuta eman beharko zaizkie** sukaldeko langileei eta ikasleen guraso eta tutoreei, haiek behar bezala jarraitzeko.

-Menu-aldaketak, programazioa onartu ondoren:

- Programazioa onartu ondoren, menuak ezingo dira aldatu, baldin eta ez bada ezinbesteko kausengatik edo Hezkuntza Sailaren irizpidearen arabera onartutako eta behar bezala justifikatutako arrazoiengatik.

-Badaezpadako menua:

- Enpresa kontratistak badaezpadako menua izan beharko du kasu hauetarako: ikastetxeak zerbitzua ukatzen badu, hutsegitea baldin badago ikastetxean hotzean garraiatutako janariarekin edo hutsegitea baldin badago sukalde zentrolean.


-Kontratistaren zereginak:

- Ikastetxeak eskatutako menuak kudeatu eta balioztatzea.
- Menuak jasotzerakoan zer egin behar duen jakiteko behar duen informazioa ematea ikastetxeari.
- Hornidura-arazoak zuzentzea.

Lekukotza-laginak jasotzea:

- Kontratista behartuta dago banatutako janarien lekukotza-laginak hartzeko





beharrezko materiala hornitzera eta lagin horiek jasotzera. Jantokiko-arduradunak jaso eta gordeko digu lagin horiek.

-Ikuskapena, baimena eta kontrola:

- Enpresak ikastetxeko zuzendaritzarekin edo hark eskuordetzen duen pertsonarekin lankidetzan aritu beharko du zerbitzuaren kalitatea kontrolatzeko. Horretarako, eguneroko erregistro bat eman beharko dio, hainbat datuekin: tenperatura, kopuruak, etiketak...
- Dagozkion egiaztapenak egin ondoren, zuzendaritzak edo hark eskuordetutako pertsonak zerbitzua **onartu edo baztertuko** du. Enpresak **badaezpadako menu bat** izan beharko du.

-Dokumentazioa:

- Enpresak **paper formatuan** eman behar dio ikastetxeari jantokiari buruzko informazio guztia, baita plateren fitxa teknikoak eta ikastetxearekin izandako bileren aktak ere.

## 2) Langileak

-Jantoki, sukalde eta office-eko langileen ordutegia:

- Jantokiko begiraleen ordutegia **goizeko eskolen amaieratik arratsaldeko eskolen hasierara** artekoa izango da.
- Ratioak 2021-2022ko jantokien funtzionamenduari buruzko zirkularrean ezarritakora egokituko dira.

-Bajak eta hizkuntza-eredua:

- **Kontratatik berehala hartuko du bere gain ekartzen dituen langileen artean gertatzen diren baje erantzukizuna.** Horretarako, kontratatik **langile-poltsa** bat izango du, nahikoa langilerekin eta **prestakuntza eguneratuarekin**.
- Enpresa arduratuko da ikasleekin euskaraz hitz egin dezaketen langileak izateaz.

## 3) Higienea


-Garbiketa eta desinfekzioa:

- Enpresak sukaldea, jangela, altzariak eta tresnak garbitu behar ditu.

## 4) Gorabeherak

-Eskualdeko kudeatzaileak:

- Eskualdeko kudeatzaileek zerbitzu hori ematean ikusten diren **gorabeherak konpondu** behar dituzte.
- Eskualdeko kudeatzailearen eta ikastetxearen arteko **bileren aktak jaso** behar dira.




## NUTRIZIO-POLITIKA

### MAIZTASUNAK

	<b>Elikagai-taldea (Osagai nagusi gisa)</b>	<b>Gutxieneko maiztasunak</b>	<b>Gehieneko maiztasunak</b>
<b>Lehen platerak</b>	Barazkiak (patatekin eta patatarik gabe)	1/aste 6/hilabete	
	Arroza eta pasta	1/aste	6/hilabete
	Lekaleak (Barazkiekin edo patatarekin)	1/aste 6/hilabete	
	Patatak (haragiarekin edo arrainarekin)	2/hilabete	
<b>Bigarren platerak</b>	Haragia	2-3/aste	
	Haragi-prestakinak		2/hilabete
	Arraina	1/aste 6/hilabete (arrain urdina 1/hilabete)	
	Arrautzak	1-2/aste	
	Plater aurrekozinatuak		1/hilabete
	Arrautza-irinetan pasatutakoak		2/aste
	Frijituak		2/aste
	<b>Postrea:</b>	Fruta freskoa	4/aste
Fruta kontserban			1/hilabete
Postrerako esnekia			1/aste
<b>Hornigaiak*</b>	Barazki gordinak	2/aste	
	Barazki egosiak	1/aste	
	Patata frijituak / txipak		1/aste
	Maionesa		2/hilabete
	Tomate frijitua / tomate-saltsa		2/aste






Ogia	Ogia	1/egun	
	Irin integraleko ogia	1/aste	

## GRAMAJEAK

ELIKAGAIAK	3-6 URTE	7-12 URTE	13-16 ADINA	>16 urte
<b>LEHEN PLATERAK</b>				
Babarrunak <sup>(1)</sup>	40-50	60-80	80-90	90-100
Dilistak <sup>(1)</sup>	40-50	60-80	80-90	90-100
Txixirioak <sup>(1)</sup>	40-50	60-80	80-90	90-100
Pasta <sup>(1)</sup>	50-60	60-80	80-90	80-90
Pasta, arroza (zopa) <sup>(1)</sup>	20-25	25-30	25-30	25-30
Arroza <sup>(1)</sup>	50-60	60-80	80-90	80-90
Patatak (patatak eta...). Plater nagusia <sup>(1)</sup>	150-200	200-250	200-250	200-250
Barazkiak <sup>(2)</sup>	100-120	120-150	150-200	200-250
Haragi txikitua (pasta, arroza) <sup>(1)</sup>	15-20	20-30	20-30	20-30
Tomate-saltsa (pasta, arroza)	80-100	120-140	120-140	130-150
<b>BIGARREN PLATERAK</b>				
Txerri- edo txahal-xerra <sup>(1)</sup>	60-70	80-110	110-120	120-140
Txuletak edo saihetsak <sup>(3)</sup>	80-90	100-130	140-150	140-160
Oilasko- edo indioilar-xerra <sup>(1)</sup>	70-80	90-120	120-130	130-150
Oilaskoa (gisatua, errea) <sup>(3)</sup>	200-240	200-240	300-325	300-325
Arrautzak	1 ale	1 ale	1-2 ale	2 ale
Arraina <sup>(4)</sup>	80-100	100-120	120-150	150-180
Haragi txikitua (haragi-bolak, hanburgesak) <sup>(1)</sup>	60-70	80-110	110-120	120-140
Gisatuetarako haragia (haragi erregosia, ragouta) <sup>(1)</sup>	80-90	100-130	140-150	140-160
Plater aurrekozinatuak.	Plater aurrekozinatuaren nutrizio-konposizioan alde handiak daudenez, ezin da errazio-gramaje zehatz bat ezarri, eta gramaje			



	hori enpresa adjudikaziodun bakoitzak ezarriko du, produktu bakoitzaren nutrizio-balorazio espezifikokoan oinarrituta.			
<b>HORNIGAIK</b>				
Barazkiak <sup>(1)</sup>	35-45	35-45	45-60	45-60
Letxuga <sup>(1)</sup>	20-25	20-25	25-30	25-30
Patatak <sup>(1)</sup>	30-40	30-40	40-50	40-50
Txip patatak	15-20	15-20	20-25	20-25
Maionesa/ketchupa	10-20	10-20	20-30	20-30
Tomate frijitua	30-40	30-40	40-50	50-60
Arroza, pasta <sup>(1)</sup>	20-25	20-25	20-25	35-40
<b>POSTREAK</b>				
Fruta freskoa <sup>(2)</sup>	120-150	120-150	150-200	175-225
Fruta kontserban	50-60	60-80	80-100	90-120
Postrerako esnekia	1 ale	1 ale	1 ale	1 ale
<b>OGIA</b>				
Ogia	30	30	60	60

- (1) Produktua gordinik dagoela pisu garbian adierazitako gramajea
- (2) Produktua gordinik dagoela pisu garbian adierazitako gramajea, barazkiak soilik (patata kontatu gabe)
- (3) Produktua gordinik dagoela pisu gordinen adierazitako gramajea
- (4) Produktua gordinik dagoela pisu garbian adierazitako gramajea Glasaturik ez.

## ETA ZEIN DIRA KONTRATUA BETE EZEAN BERTAN AURREIKUSITAKO ONDORIOAK?

Baldintza teknikoan agirian ezarritako betekizun eta baldintzak bete ezean, zigorrak eta zehapenak ezarriko zaizkie kontratistei.

Gertaeren larritasuna eta horien ondorioak kontuan hartuta, arinak, astunak eta oso astunak dira.


### **-Arau-hauste astunen adibideak:**

- Ordezko langile bat berehala zerbitzuaren esku jartzea, jatorrizko langilea ez dagoenean edo hark zerbitzua ematea ezinezkoa denean (30.000 euroraino).
- Janaririk ez egitea, garraiatzea eta/edo entregatzea (50.000 €raino).
- Kontratuaren aplikazioaren ondorioz eskatutako informazioa ez ematea edo informazio faltsua ematea (50.000 €raino).

### **-Arau-hauste oso astunen adibideak:**

- Ikasturte berean janaria ez garraiatzea eta/edo ez entregatzea bigarren aldiz (80.000 €raino).
- Kontratu honetan eskaini beharreko menuei buruz jasotakoa ez betetzea (100.000 €raino).

-Berariazko zigorra, balorazio-irizpideak ez betetzeagatik:



- Eskaintzaren bidez kontratistak bere gain hartu ondoren, balorazio-irizpidetzat hartu diren konpromisoak ez betetzea: kontratuaren prezioaren edo aurrekontu mugatzailearen % 1 eta % 10 artean, urraketaren larritasunaren eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.

Gorabehera izapidetzen hasteko oinarrietako bat, dagokion zigorra ekarriko duena, enpresa kontratistako Kalitate Saileko langileekin eta sailaren ordezkariekin Administrazioak eskatutako aldizkakotasunarekin egindako bileren aktek osatuko dute. Akta horiek ezin izango dira hasieran aurkaratu.

Kontratuen baldintzak betetzen direla kontrolatzeko eta zaintzeko eta, betetzen ez badira, zigorrak ezartzeko arduradun nagusia Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea da.

*\*Txosten hau egiteko erabilitako iturriak:*

- **Arabako kontratua:**  
[https://www.contratacion.euskadi.eus/kontratazio\\_iragarkia/arabako-lurralde-historikoko-hezkuntza-sailaren-menpeko-hainbat-ikastetxe- publikotan-kudeaketa-zuzeneko-jantokien-funtzionamendurako-prestatutako-janariak-eta-prestazio-osagarriak-prestatu-garraiatu-eta-ematea/webkpe00-kpeperfi/eu/](https://www.contratacion.euskadi.eus/kontratazio_iragarkia/arabako-lurralde-historikoko-hezkuntza-sailaren-menpeko-hainbat-ikastetxe- publikotan-kudeaketa-zuzeneko-jantokien-funtzionamendurako-prestatutako-janariak-eta-prestazio-osagarriak-prestatu-garraiatu-eta-ematea/webkpe00-kpeperfi/eu/)
- **Bizkaiko kontratua:**  
[https://www.contratacion.euskadi.eus/kontratazio\\_iragarkia/bizkaiko-lurralde-historikoko-hezkuntza-sailaren-menpeko-hainbat-ikastetxe- publikotan-kudeaketa-zuzeneko-jantokien-funtzionamendurako-prestatutako-janariak-eta-prestazio-osagarriak-prestatu-garraiatu-eta-ematea/webkpe00-kpeperfi/eu/](https://www.contratacion.euskadi.eus/kontratazio_iragarkia/bizkaiko-lurralde-historikoko-hezkuntza-sailaren-menpeko-hainbat-ikastetxe- publikotan-kudeaketa-zuzeneko-jantokien-funtzionamendurako-prestatutako-janariak-eta-prestazio-osagarriak-prestatu-garraiatu-eta-ematea/webkpe00-kpeperfi/eu/)
- **Gipuzkoako kontratua:**  
[https://www.contratacion.euskadi.eus/kontratazio\\_iragarkia/gipuzkoako-lurralde-historikoko-hezkuntza-sailaren-menpeko-hainbat-ikastetxe- publikotan-kudeaketa-zuzeneko-jantokien-funtzionamendurako-prestatutako-janariak-eta-prestazio-osagarriak-prestatu-garraiatu-eta-ematea/webkpe00-kpeperfi/eu/](https://www.contratacion.euskadi.eus/kontratazio_iragarkia/gipuzkoako-lurralde-historikoko-hezkuntza-sailaren-menpeko-hainbat-ikastetxe- publikotan-kudeaketa-zuzeneko-jantokien-funtzionamendurako-prestatutako-janariak-eta-prestazio-osagarriak-prestatu-garraiatu-eta-ematea/webkpe00-kpeperfi/eu/)



\*

Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntza izan du. Argitalpenaren edukia Bidezko Elikadura – Justicia Alimentariaren eta EHIGERen erantzunkizuna da, ez bestena, eta ez du islatzen, ezinbestean, ez Bizkaiko Foru Aldundiaren ez Eusko Jaurlaritzaren ustea.

2023ko urria

Egileak

Babesleak

